# NERE MAITEARI

Zergatik Josu, Jainko nerea,
nere Maitale, nere Eroslea,
utzitzen nazu?
Zergatik nazu, onen gogoŕki
gau iḻun onetan bakaŕik utzi,
makal, beaŕtsu?
Nola nigandik gauŕ zera aldentzen
eta zurekin ez nazu aŕtzen?...
Nora zuaz zu?

Emen nago ni, Josu maitia,
biotza txit aul ¡eŕukaŕia!
ta gogo-miñez;
ez ditulako gaxo - gaxoak
entzuten zure mintzo gozuak
samuŕ ta maitez;
Nola etzera nitzaz kupitzen?...
Nola ez nazu Zeugana deitzen
oyu bigunez?

Nere biotzak Zu bear zaitu;
Zu gabe Jauna ezer nai ez du,
Zugan du poza;
beaŕ-beaŕ du Maite gozoa
zure maitasun eder osoa,
zure Biotza,
jaŕ dualako emen ludiyan
izotz gogoŕak galdu-zoriyan
sarturik otza.

Gauŕ nere gogo eŕukaŕiak
bere gain ditu ekaitz guziak;
begi zayozu:
bakardadea, gau txit iḻuna,
ludi gaiztoen jardun leguna,
etsayen muxu;
ete gaxua dabiḻ daŕdaizka
ezpai laŕiyak gogoŕ artu-ta;
¡galdu bear du!

Nola etzera Jauna kupitzen
eta maitari ez nazu artzen
gauŕ magalian?...
¡Ai! Ote da ba oben nerea
ezaŕ-duana gogoŕ kaltea
nere gañian?...
Nere obena ote da Jauna
nigandik uŕun bidal-zaituna?...
¡Berau agian!

Oŕela ba-da; ¡eŕuki zaite!
ez det ezer nai Josu, Zu gabe;
¡azkets zadazu!
ez nere oben ain gaiztoari
¡ene Aita on, ene Jaun Urtzi,
ez, ez, begitu!
bai nere maitez, Jainko aundiya,
Biotz zeurean dezun zauriya,
¡ikusi zazu!

Zu zaitudala, betoŕzkit noiz-nai,
ekaitz gogoŕak, aneika etsai,
sulez osoa;
ba zure magal samuŕian nik
izango ez det oyen bilduŕik,
zaitut Altsua,
eta maitari biziko naiz ni
¡Josu nerea! zurekin beti;
¡Bizitz gozua!

Bañan noizbaiten ¡ai zer eroa!
nai ba'det utsi zure altzoa,
eldu zaidazu;
biotz gaxo onen Jabe bakaŕa
¡ene Egiḻia! legez zu zera,
zeurea dezu,
eta ez ¡aŕen! neuretzat utzi;
baizik betiko kendu, bai, neri
ta ¡zeutzat artu!

TENE.